

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Junkal Aizpurua Igiñiz

*Irun, Gipuzkoa
(1925-2018)*

Aurkibidea



Biografia



1925eko azaroaren 10ean
jaio zen Junkal, Irungo
Urdaiñe (Urdaienea)
baserrian. 30 urte bete zituen
egun berean ezkondu zen
Jose Andres Aizpiolearekin,
Urjauzi baserrira. Lau
senidetan zaharrena zen
Junkal, eta irundarrak zituen
gurasoak. Ama Urdaiñe
baserrikoa zen, eta aita ere
Irungo kanposantu inguruko
beste baserri batekoa.

1936ko gerran, Junkalek 11
urte zituela, Hendaian hartu
zuten babes hiru anai arrebak
(anaia txikiena ez zen artean
jaio) izeba baten etxean;
baina gurasoak Urdainen
geratu ziren aziendak
zaintzen. Junkalek ez daki
zehatz-mehatz zenbat
denbora egin zuten
Hendaian, baina ongi gogoan
ditu kezka handiz bizitako
egun haiek, Irun sutan eta ke
artean ikusten baitzuten.

Irungo Junkal parrokia ondoko
Etxeberria eskolan ibili zen.
Baserriko zein etxeko lanetan
jardun izan du beti Junkalek;
gaztetan, baserriko kanpo
lanetan aritzen zen aitari
laguntzen, eta esne partitzen
ere ibili zen.

50 urte inguru zituela,
Urjauzitik Irungo Larreaundi
auzoko etxe batera joan ziren
bizitzera Junkal, Jose Andres
senarra eta seme-alabak.

Zintak

IRN-044

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-07-28
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Errazkin, Aitor

IRN-045

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazkin, Aitor
- **Data:** 2015-07-28
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com